

ELKARRIZKETA: LUIS MIGUEL SAENZ, ELA-KO ORDEZKARIA

ARKO

Arrasate

P R E S S U

2000.eko
urriaren 11a
512. zenb.

LORAMENDI ELKARTEA
ARETXABAETA
ARETXABAETA



Jainkoari erreguz,
beharrari mailuz

IKUSPEGIA: NEKANE SAN MIGEL • ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA BEREZIA
KIROLAK: KENCI ARRASATE TALDEA • KULTURA ELKARRIZKETA: JON ANDUEZA

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Golz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B. ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezlifio, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezlifio, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisiklinikoak, R-X) Ferrerrias, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerrias, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerrias, 56 ☎ 943 79 44 22

Multzokideak... eta bestelakoak

Urtero ezustean harrapatu arren, Marixuren aurtengo mirariak sorpresa baino gehiago ekarri dit. Lirrikarako (eta lirikarentzako) hain gogor, ilun, eta goibel datozen garaiotan eskertzekoa baita irudimena hala gauzatzea: Hondarribiko emakume eta gizonek ez zuten irainik entzun behar izan Arrasateko kaleetan zehar; ez eta beldurrik pasa, zentzunak ezartzen dituen muga guztiak gainditu ondoren, uholde amorratua mehatxu eta keinuz hurbiltzen ikustean gertatu zaien moduan... Ordu batzuetan, gutxienez, besterik gabe desfile txiki bat egin zuten, eta nahiz eta euren herrian ez izan, agian arnasa eta haize fresko piska bat hartu zuten gure jai alkoholtsu honetan.

Ez noa ni orain "zorioneko" alarde horretan emakumeak parte hartzearen inguruan hainbeste aztertu,



Nekane San Migel

idatzi eta ezbaitu diren argudioez idaztera. Zertarako...? Iraileko gertakizunak gertatu ondoren, arrazoia eta errespetoa ate batetik irten zirela eta, antropologoren batekin egin beharko zuela sarrera, azterketa sakonen bat burutzeko esanaz, hainbat ahots entzun nituen, argudioak eta zentzuna alferrikakoak suertatu eta gero. Jendea taldetik pasa, eta multzo bihurtuz egiten dituen ekintza eta jarrerai buruz asko aztertu eta idatzi arren, jarrera horiek kanpotik ikusterakoan (edo edonola jasaterakoan) harri-dura baino zerbait gehiago sortzen digute eta, oraindik. Eta ez urruti edo noizbehin-

arenak...), multzo erotu horrekin bat egiten ez zuen edonor erasotuz... Edo Lleidako hainbat herritan... Ez ditugu egunero entzuten "a por ellos" oihuaren oihartzunez belarri, buru eta bihotzak beteaz, espanyolidadearen eta eskumaren balio zaharkituak (ez hainbeste, dirudie-nez) onartzen ez duen guztia terrorismoaren guardasolpean sartu eta desagertzerazteko ahaleginetan diharduten uholdeek...? Eta edozein herrixkatan, bertako kideek multzoa osatu eta bestelako ohitura edo pentsamoldeak duena ere baztertzekoan...? Multzo babesle bateko partaide ez zelako merezi ote zuen bere senarraren eskuek lepoa estutu eta erailtzea Tuterara Kubatik etortzea ote zitzaien Carmenek...?

Hondarribiko emakume eta gizonek ez zuten irainik entzun behar izan Arrasateko kaleetan zehar

kakoak direlako: denok izanen ditugu gogoan El Ejidon multzo erotu batek arabiar, beltz... eta hainbat atzeritarrengandik hasi eta errespetoa eskatzen zuten beste talde guztien ondasunak nola suntsitu zituen (laguntza ematen zieten taldeenak, emakume talde-

Zehatz edo zabal azter ditzakegu, baina egunero ditugu halakoak: talde barruan, babestu, agintari, indartsu sentitzeko behar hori eta horren agerpenak... eta bestelakoak, geure modukoa ez denaren bazterketa (erderismo hedatu batez "ezberdina" dioguna)... Eta egunero ere, galdera bera: multzo hau demokrazian gehien-go esaten dena ote? ■

"Jendeak uste du hobeto dela ahalik eta gehien produzitzea eta ahalik eta gutxien gastatzea. Hori horrela balitz, Hirugarren Mundua aberatsena litzateke eta ez da horrela".

Luis Miguel Saenz

10

edukiontzi galtzada harri jarri ditu salgai Arrasateko Udalak.

100 metro koadro lur estaltzeko beste dago eta prezioa enkateak erabakiko du.

Beraz, badakizue, baserri bide, txabola aurrealde edo bestelako lur zatirik txukuntzeko asmorik baduzue, Arrasate zaharreko galtzada harriak aprobetxatu zenezakete.

AURKIBIDEA

- Ikuspegia 3
- Multzokideak... eta bestelakoak
- Irakurlea idazle 4
- Inkesta 5
- Asteko hitzorduak 6
- Begi kolpez 7
- Euren ikuspuntutik 8
- Ereljioa eskolan
- Astearren errepassoa 9
- Orain eta hemen . . . 10/11
- Txutxumutxuak 12/14
- Asteko gaia 15/17
- Hezkuntzaren bidez herriak aurrera bidean
- Aurrez aurre 18/19
- Luis Miguel Saenz "Huiti"
- Marixu Kajoi berezia 20/21
- Kirolak jokoan 22/23
- Kulturaren txokoa 24/25
- Ikusi eta entzun . . . 26/27
- Azoka plaza 28/29
- Foto zaharra 30

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Dieguez. **Kazetariek:** Ubane Madera eta Leire Kortabarría. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Amolabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berazibar (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakua:** Lorea Agiriano. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odnozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
© ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gentu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Gabriel Mendizabal.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Onati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 71 17 31

ERRONKA BETETZEKO AZKEN TXANPA... 1.000 BAIETZ

Arrasatearrok euskararen aldeko aldarrikapenetan aitzindari izateko dugun joerari jarraiki, bertoko euskararen aldeko herri mugimenduek antolatutako azken kanpainak ere arrakasta izango zuen zalantzarik ez neukan. Eta zergatik diotsuet hau, bada? Justizia epaitegira bidaltzeko asmo dugun 1.000 eskari ofizial horietatik, honezkerro 600etik gora jasoak ditugulako. Ez da marka makala bakoitzak konpromisoa eman behar duenean eta herri bakarrean lortu nahi denean. Baina, hau 15 egun inguruan eskuratu dela esaten badugu, ezin ukatu ongi baino hobeto goazela. Lerro hauen bidez mahaietara inguratu zaretzen guztioi eskerrak eman nahi genizkizueke, ondo eta azkar mugitu zaretelako. Asmoen erdiak gaindituta izateak ematen duen poztasunetik abiatuta, ekimenak muga behar bezala joko duen esperantza zabaladugu antolatzaileok.

Dena ondo doanik ezin ukatu, bada, baina ederto hasitakoa hobeki bukatzeak ematen

du benetakoko poza, eta hori eskatzera natorkizue gutun honekin, falta ditugun eskari horiek azkar batean igortzea edo helaraztea AEDri. Horretarako aukera herriko hainbat tabernatan, ikastetxeetan, eskualtegietan, enpresetan, etab.etan izango duzue azarora arteko epean.

Azken txanpa lehenengoa bezain bizkorra eta oparora izango delakoan, zuen eskerak jaso arte.

Oskar Elizburu

Bidezko Merkataritza?

Kafea, platanook, arropak, oinetakoak... Gure eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun hainbat produkturen negoziokoak miseria eta mepeketasuna sortzen dituzte hirugarren munduan. Gure bizimoduak aberatsak aberatsago egin eta natura eta gizakiak hondatzen dituen katea batean murgiltzen gaitu.

Naturaren aberastasunak eta besteren izerdia horren merke erosten ditugula eta harrotzeko bezain gupidagabe ote gara?

Hala ez bada, zer egin horren legezko eta bidegabeko den merkatu-sistema honen menpe bizi diren nekazari eta langile esplotatuen sufrimendua zuzentzeko?

Eta gure eguneroko botoa erabiliko bagenu? Zerbait erosten dugun bakoitzean egiten jarraitzearen aldeko botoa ematen dugu eta erosten ez dugunean egiten ez jarraitzearen aldekoa.

Bidezko merkataritzak aukera horixe zabaltzen digu. Hirugarren munduan ekoiztutako zerbait erosi eta langile eta nekazariak gizaki gisa tratatuak izan direneko ziurtasuna.

Harreman Bidezko
Merkataritza Denda

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Asteazkena, 11

- Azkoaga, Ferrerías

Osteguna, 12

- Azkoaga, Iturriotz

Ostirala, 13

- Korkuera, Musakola

Larunbata, 14

- Irizar, Erguin

Igandea, 15

- Armezua, Santa Marina

Astlehena, 16

- Zabala, Zarugalde

Asteartea, 17

- Ruiz, Maalako Errabala

Asteazkena, 18

- Morales, San Andres

Osteguna, 19

- Azkoaga, Ferrerías

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak


Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Jendeak jaiegunak aprobetxatzen ditu hor zehar joateko?

Zubi bat dagoenean, gero eta jende gutxiago geratzen da herrian



Eduardo Garcia
(61 urte)
Erretiratua

Bai, noski. Ni ere banoa, bestela hemen zer egingo dugu? Ahal denean aprobetxatu egin behar da.



Javier Martinez
(29 urte)
Langilea

Bai, ni ere banoa. Ordesa-
ra noa. Badakizu, ahal bada,
aprobetxatu egin behar!



Abel Garcia
(36 urte)
Langilea

Aukera dutenek apro-
betxatzen dute. Nik ezin dut,
autonomoa naizelako.



Iñaki Fernandez
(18 urte)
Ikaslea

Nik uste dut gehienek apro-
betxatzen dugula, herrira joa-
teko eta. Nik oraingoan ezin
dut, familia arazoengatik.



Jaione Guemes
(38 urte)
Langilea

Bai, jendeak aukera due-
nean kanpora irteten du. Nik
ezin dut.



Esther Azkarate
(56 urte)
Langilea

Aprobetxatu egiten dute,
bai. Ni ez naiz irtengo, ezin
dut.



Aurora Iturricastillo
(56 urte)
Langilea

Desiatzen egoten da jen-
dea, bai. Lana agudo laga eta
alde egiten du jendeak.



Dolores Velasco
(79 urte)
Erretiratua

Bai, ikusten da. Herrian oso
jende gutxi geratzen da. Nik
dagoeneko ez dut hor zehar ibil-
tzeko adinik.

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

GANBARA

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

Arte
ederretako
materialean
%25-30eko
deskontua

11

asteazkena

■ ZINEMA

Romeo debe morir, 19:00 - 21:30, Alai zineman. 13 urtetik aurrera koentzat.

12

osteguna

■ ZINEMA

Romeo debe morir, 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik aurrera koentzat.

13

ostirala

■ ZINEMA

Romeo debe morir, 19:00 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik aurrera koentzat.

■ HAUR ETA GURASOEN-DAKO EKINTZAK

Hiru ekintza antolatu ditu Mugi Psikomotrizitate Zentroak: urtebeterainoko umeen gurasoendako masaje ikastaroa, 2 urterainoko en gurasoen topaketak, eta 9 hilabete-tik 5 urtera arteko umeen-dako psikomotrizitate saioak. Argibideak eta izen ematea: 943 77 08 05 telefonoan, 15:00etetik 19:00etara.

14

larunbata

■ ZINEMA

U-571. 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik aurrera koentzat.

15

igandea

■ ZINEMA

U-571. 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik aurrera koentzat.

16

astelehena

■ ZINEMA

U-571. 19:00 - 21:30, Alai zineman. 13 urtetik aurrera koentzat.

■ YOGA IKASTAROA

Yoga hastapen ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak. Urriaren 9tik azaroaren 29ra arte izango da, astelehen eta eguaztenero. Argibideak edo izen ematea, 943 79 35 76 edo 943 79 66 98 telefonoetan. 21:00etatik aurrera deitu.

■ ARETXARTEREN LOGOTIPO LEHIAKETA

Logotipo lehiaketa antolatu du Aretxartek, Aretxabaletako merkatarien elkarteak, euren anagrama aukeratzeko. Edozein debagoiendarrek parte hartu ahal izango du. Aretxarteko dendetan gastatzeko 30.000 pezeta jasoko ditu irabazleak. Helbide honetara bidali beharko dira lanak: Zubia oinetako denda, Mitarte 14, 20.550 Aretxabaleta.

Udalatx eguna



Ostegunean, hilaren 12an, ospatuko da Udalatx eguna. Hainbat ekintza antolatu ditu Besaideren "Udalaitz-zaleak" taldeak: 11:00etan, lore eskaintza gurutze handiaren aurrean; 12:30ean, Udalako Esteban Deunaren elizan, hildako mendizaleak gogoratuko dituzte. Meza honetan aipamen berezia egingo zaie Felix Iñurrategiri eta Udalatx zaleak izan zirenei.

Ohiturari jarraituz, meza ondoren, Aita Lekuona jaunaren abestia kantatuko da.

17

asteartea

■ ZINEMA

U-571. 19:00 - 21:30, Alai zineman. 13 urtetik aurrera koentzat.

■ ZALDIBARKO TXAPELKETA

Aurtengo Zaldibarko areto futbol txapelketa antolatzeko, bilera egingo da Montterronen. Interesatuak arratsaldeko 18:30ean dute hitzordua. Gogoratu zuen parte hartzea beharrezkoa dela txapelketak aurrera egiteko.

hildakoak

- Guadalupe Goikoetxea Oiartzabal, urriaren 8an. 89 urte zituela.

jaiotzak

- Danel Rodriguez Nuñez, urriaren 1ean.
- Ander Abdon Murua Txintxurreta, urriaren 4an.
- Jone Zubizarreta Iturbe, urriaren 6an.

mezak

San Joan parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza


Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata
19:00 (gaztelaniaz)
Igandea
12:00 (gaztelaniaz)

Urkuluko
uraren
maila

%58,7



Ilargia



Ilbete

Datorren ostiralean, urriaren 13an, ilbetea izango dugu.

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Meteorologia Zentrua



OSTEGUNA 12

Oso lainotua egongo da eguna. Euri ahula goizean, baina zaparradak areagotuko dira egunean zehar.



OSTIRALA 13

Temperatura ez du aldatuko, baina eguraldi txarri izango da nagusi: euria eta haize freskoa.



LARUNBATA 14

Lainoak nagusi larunbatean ere eta, horrekin batera, euri arriskuak gurekin segituko du.

eskelak

Eskelak, esker onak
eta urteurrenak
jartzeko tartea

Azken eguna:
asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91


LEHENENGO URTEURRENA

Jose Garcia Aguirre



Urteurren meza, San Juan Parrokiako elizan, 2000.eko urriaren 14an, larunbatean, arratsaldeko 19:00etan.

*Aurrez esker ona bertaratzen zareten guztioi.
Bere familiak*



Ferrerias. 943 79 87 62

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



USTEAK USTE

Zertan gabilza?

Jai giroa zen nagusi joan den ostiralean. Jende mordo zebilen kaletik. Eta gertatutakoa gertatu ondoren ere, jende gehienak kalean segitu genuen tabernaz taberna. Gutariko asko, gainera, ezertaz ere ez ginen ohartu (parean harrapatu ez, edo besterik barik jai giroan erabat murgildu ginelako).

Astelehenean, lanera etortzean, guztien artean Maritxu egunean gertatu zenaz aritu ginen; lankide askoren iritziz, kaputxadun horiek kanpokoak ziren. Ertzaintzara deitu genuen baita, gertakizunen bertsio ofiziala jasotzeko eta han, antolatutako taldea zela esan ziguten (horrelako kasuetan beti antzera aritzen direla).

Kalteak handiagok izaten dira ondo antolatuz gero. Baina, nik neuk emaitza positiboak nahiago ditut negatiboak baino, eta antolatuz gero, gauza asko egin genitzake.

Arrasateko alkateak esan zidan bezala, "horrelakoe-tan bakarrik hitz egiten da Euskal Herrian bizi dugun arazoaz". Eta arrazoia ez zaio falta.

Antola gaitzen!

Marijo Deogracias



Erljioa eskolan

* Anjel M. Ipiña

Erljioa eskolan zergatik eman behar den galdetuz gero, erantzunik errazena legeak agintzen duelako esatea litzateke. Baina, badira arrazoi sakonagoak, nire ustez, irakasgai hau eskolan txertatzeko, eta eskola akonfesionalaz ari naiz, bestelakoetan, hala edo nola, gai hau txertatzen baitute.

Eskolaren zereginen artean ondorengoak badira: ikaslea gizarteratzea, ikasleari errealitatea ezagutzeko eta interpretatzeko tresna egokiak ematea, ... Erljioa, gaur egun behinik behin, eskolan agertu beharko da, errealitate osoaz aritzen bagara.

Erljioa eskolan ez da justifikatzen Jainkoa delako, erljioa bera dagoelako baizik (era ezberdinetako ageripide erlijiosoak nonahi aurki ditzakegu).

Ezin izango dugu gure kulturaz guztiz jabetu baldin eta erljio kristaua (katolikoa) ezagutzen ez badugu, berau izan baita eta bada, onerako edo kalterako, gure historian, gizartean,

ikusmoldeetan, ... eragina izan duena. Honek ez du esan nahi gainerako erljio handiak (edota gure gizartean gero eta ugariagoak diren beste eliz- edo erljio-taldeak, edota beste Herrietatik etorritakoenak) landu eta ezagutu behar ez direnik.

Erljioaren helburua eskolan ez da adoktrinatzea, honetan ez da bereizten gainerako ikasgaiekin. Baina, ez dago irakaskuntza neutrorik: testuliburuak, irakasle bakoitzak onartzen eta erabiltzen dituen hipotesiak, metodologiak, ... eskolak berak bul-tzatzen duen giroak, ... hezizte dute.

Eskolan erljioaren espa-

“ Ezin izango dugu gure kulturaz guztiz jabetu baldin eta erljio kristaua ezagutzen ez badugu ”

rru zuzena ez da fedea (horretarako kristau- edo eliz-elkar-tea baitago, bere antolakuntza eta eskaintza bereziarekin: doktrina edo katekesia, hain zuzen ere). Eskolan erljioaren esparrua ezagutza da, honetan ere ez da bereizten gainerako irakasgaiekin.

Baina, ezagutza ez da mugatzen alderdi teorikora (edukin kontzeptualetara). Baina, ezagutza ez da mugatzen teorikora (edukin kontzeptualetara). Gaurko hezikuntza-ereduan hiru dira landu beharreko edukinak: kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Ikuspegi honetatik erljioaren irakaskuntzak ere bere baitan hainbat balore bideratzen du.

Baloreak, edozeintzuk direla ere, ezagunak izan zein ez, barneratu egiten dira. Eskolak, edozein ikasgaietatik, proposatzen dituen baloreak ikasleak, era aske eta koherentean, barnera ditzan eskaintzen ditu. Bestela ez luke zentzu handirik izango horretan denbora ematea, benetan balioarritzat (egunero-ko jardunetan) eta balio-tsutat (gizalegez jokatze) joko ez bagenitu.

* Irakaslea

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

ML
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

astea bi hitzetan

■ Greba amaituta

Hiru egunetan geldi egon eta gero, ostegunean garraiolariak errepidera bueltatu ziren. Sintragiko ordezkariaren esanetan, gustura geratu dira Eusko Jaurlaritzak garraiolarien eskaerei emandako erantzunarekin. Ez, ordea, Madrilgo gobernuak emandakoarekin. Horrexegatik ez dira errepidera gustura itzuli.

Grebaren eraginez, San Andresko Fagor lantegian bi egunetz lan barik egon ziren eta Fagor Garagartzan, berriz, egun batez. Fagor Ederlanek helikopteroak erabili behar izan zituen.

Komertzio eta gasolindegiei dagokienez, DIA izan

da grebaren ondorioak gehien igarri dituenak.

■ MU-Udala

Mondragon Unibertsitateak eta Arrasateko Udalak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten ostiralean. Ekitaldian, Jesus Garmendia Humanitate eta Zientzien fakultateko dekanoa eta Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea izan ziren, besteak beste.

Hitzarmenaren arabera, Hizkuntzen Psikopedagogiako ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte Arrasateko Udaletxean. Dagoeneko ikasle bat hasi da hamar hilabeteko praktikaldia egiten.

Mondragon Unibertsitateak antzeko hitzarmenak sinatu ditu Emun kooperatibarekin, CIM Hizkuntza Eskolarekin eta Bergarako Udalarekin.

■ Eroski hazten

Eroski taldea etengabeko hazkundera lortzen ari da. Aurten dagoeneko 27.000 milioi pezeta inbertitu ditu eta 1.600 lanpostu berri sortu ere. Egindako inbertsioarekin 87 supermerkatu, hipermerkatu bat eta banaketa alorreko beste hainbat negozio ireki ditu. Eta hor ez da bukatzen gauza, izan ere aurten 70.000 milioi pezeta ditu inbertitzeko.



Litekeena da aspaldiko urteetan mendi handiei errespetua galdu izana, neurri batean behintzat. Hala ere, uste dut istripu honek ez lukeela eragin hori sortu behar. Felixena zorte txarra besterik ez da izan, eta horrekin ezin da justifikatu beste konturik. Hori bai, mendiari merezi duen errespetua zor zaio, eta zoritxar honek balio izan badu nebulosa horretan jendea esnatzeko, ba tira. Dena dela, beste edozein istripurekin ere irakurketa bera egin beharko litzatekeela uste dut.

ALBERTO IÑURRATEGI
Euskaldunon Egunkaria
(2000.10.6)



■ Odol emaileen batzarra

Urteroko batzarra izan zuten Debarroko odol emaileek domekan Arantzazun. Betikoari jarraituz, meza entzun zuten lehenengo. Ondoren, batzarra izan zen eta dominak banatu ziren. Eta bukatzeko Hospederian bazkaldu zuten.

Gerturatu zirenen artean, Gipuzkoako odol emaileen lehendakaria, Juan Carlos Redondo, izan zen.



Udaltx
Inmobiliaria

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Fiskal Aholkularitza
- Errentamenduak
- Kontratuak

**Etxebizitza
berriak salgai**


- Arrasaten Ferrerías kalean.
- Aretxabaleta erdialdean.

Maalako Errebala, 27 behea ▪ Tel.: 943 79 59 99

LAN ESKAINTZA

**Zahar berri egitasmorako
eragilea behar da**

- Egun erdirako lan kontratua eskaintzen da.
- Hautaketa prozesuan parte hartu gura izanez gero, bidali kurrikuluma AEDra (Pablo Uranga, 4 Arrasate) azaroak 20a baino lehen.
- Informazio gehiagorako deitu 943 71 21 17 telefonora edo etorri Pablo Uranga 6an ditugun lokaletara.



Txikizioak herrian

Maritxu Kajoi gauean burua estalita zeramatzen 20 bat lagunek bost banketxeren eta epaitegiaren kontra egin zuten. BBVA, Kutxa, Banco de Vitoria, BSCH eta Caixako egoitzei eta herriko epaitegiari molotov koktelak jaurti zizkieten, eta baita Viajes Ecuador agentziari ere. Kalte gehienak erai-kinen kanpoaldean izan ziren, kutzazainetan eta pertsiante-tan, baina bulegoak erabat kiskalita ere gertatu ziren hainbat lekutan. Kontzeziño kaleko Ecuador bidaia agentzia, esaterako, itxi egin dute eta horrela egongo da hiru bat astez.

Biteri kaleko BBVn patio-tik sartu zen sua eta atea eta sofa bat kiskali ziren, baina altzariez gain, informatikako sailak jasan zituen kalterik handienak: ordenadoreak, telefono haria... Kutzazaina ere kiskalita geratu zen.

Olarte kaleko Argentiaren bulegoari dagokionez, jasotako kalteak larriagoak izan dira eta, ondorioz, asteartetik, Biteri kaleko BBVren bulegoan



Kalte hauetaz guztietaz gain, edukiontzi pare bat bat ere erre zituzten.

daude Argentiariakoak, euren bulegoa konpondu arte.

BCHn zuzendariaren bulegoa kiskalita gelditu zen bai eta kutzazaina ere. Barruko bestelako altzariek ere jasan dute kalterik. Horixe bera gertatu zen Banco de Vitorian ere: kutzazaina eta zuzendariaren bulegoa kiskalita.

Banco Guipuzcoanon, Seber aldeko leihoa erabat erreta geratu zen eta, ondorioz, keak barruko sabaia belztu zuen eta argi instalazioa erre zitzairen. Telefono eta orde-

nadore barik egon ziren aste-artera arte.

La Caixan kutzazain berria jarri behar dute eta bulegoari dagokionez, kearen eraginez hormak belztu zitzaizkien.

Kutxan ere kalteak kutzazainak izan ditu eta azkenik, Santander Bankuan palankaz saiatu ziren sartzen, baina lortu ez zuten leharkari txiki batekin barruko beira apurtzea lortu zuten.

ERTZAINEKIN ISTILUAK

Horrez gain, goizaldeko 8:00ak

inguruan Ertzaintza gerturatu zen Monterron parera, auto batek pertsona bat harrapatu zuela eta, horixe argitzera. Txosnaganean zegoen lekuko batek adierazi digunez, Ertzaintzak kargatu egin zuen eta orduan jendea kontra egiten hasi zitzairen, botilak eta abar botatzen. Ondorioz, bi ertzainek zauriak jasan zituzten.

EHREN OHARRA

Gertaeren aurrean, herriko EHko zinegotzi taldeak hiru puntutako ohar bat kaleratu zuen domekan. Garzonek eginitako azken atxiloketen aurrean kezka azaldu ondoren, zera adierazi zuen taldeak: batetik, demokrazia eta normaltasuna lortzeko apustua egin behar dela, eta horretarako indar abertzale eta aurrerakoien arteko elkarlana dela bidea. Bestetik, txikizioek zailtasunak sortzen dituztela elkarlan horretan; eta, hirugarrenik, bizi dugun gatazka gainditzeko herri ekimen eraikitzaileak bultzatu behar direla.

Agur, Cerrajera



Ostegunean hasi ziren Cerrajerako hormak botatzen. Garai bateko apendizko eskola izan zena, betirako desagertuko da. Gerra ostean eraikitako etxe horretan arrasatear asko hezi dira. Kooperatibak ere hantxe

izan du hazia, hantxe ikasi zutelako kooperatibako sortzaileak.

Arrasate Musikalen etxea, berriz, zutik geratu da, baina Cerrajerako etxeak egin bezain laster, hori ere bota egingo da.

EH ez dago pozik Diputazioarekin

Astelehenean, Euskal Herri-tarrok alderdiaren Gipuzkoako ordezkariak Beasain-Durango errepede-ari buruzko prentsaurrea eman zuen Bergaran. Hizlarien artean, besteak beste, Joxean Alustiza egon zen, EHko batzarkidea.

Errepide horrek bailararako duen garrantzia azpimarratu ondoren, dituen gabeziak salatu zituen. Adibidez, Zumarraga eta Bergara arteko errepede zatiak bi bide izango dituela, eta ez lau, Mankomunitateak eskatutako moduan. Horrez gain, lanek jasan duten atze-



rapena ere salatu zuen. Hori guztia kontuan hartuta, Gipuzkoako EHrendako "borondate falta handia azaldu du Diputazioak errepede horri dagokionez", eta horren arrazoia, "Eibar-Gasteiz autobidean" omen dago.

Atentatua gaitzestu du udalbatzarrak

Astelehenean bi osoko bilkura berezi izan ziren. Batetik, pasa den irailaren Mecanizados Alberdi enpresak jasandako atentatua gaitzesteko deia egin zuen EAJk. Izan ere, enpresa horretako jabea eta langile asko arrasatearrak dira.

Aretoa jendez bete zen; enpresako jabearen senitartekoak eta langileak ziren.

Horrez gain, hasi aurretik, Granadan izandako atentatuaren aurrean, PSE-EEK minutu bateko isilunea eskatu zuen eta halaxe hasi zen bilera.

Ondoren, EAJk aurkeztutako mozioa bozkatu zen. Hiru puntutan, ETAr indarkeriazko ekintzak egiteari uzteko eskatzea, atentatuaren gaitzespena eta langileei eta enpresaren jabeari elkartasuna adieraztea proposatu zuten jeltzaleek. Mozioa onartu egin zen EA, EAJ, PSE-EE, EB eta PPren aldeko botoekin. EHk kontra bozkatu zuen. Ondoren azaldu zuenez, mozioaren kontra bozkatu zuen, partziala zelako. Langileekiko eta jabearekiko



Jende gehiena zutitu egin zen minutu bateko isilunea egiteko.

elkartasuna adierazteko ados dago alderdia, baita egindako atentatua deitoratzeko ere, baina Xabier Zubizarretaren esanetan, bakarrik alde bateko ekintzak gaitzesten ditu.

Bozketaren ondoren, alde bateko zein besteko alderdiak eztabaidan hasi ziren.

HIRU HITZARMEN

Ordu erdi geroago udalbatzarrak, Hirigintzako lantzeko bildu zen.

Lau gai zeuden zerrendan eta laurak onartu ziren. Bate-

etik, Asam lantegia erosteko hitzarmena gauzatu zen. Uztailan erabaki zenez, udalak Asam lantegi zaharra erosi eta Polmetasari alokatuko dio; izan ere, Polmetasak bere jarduera handitu nahi du, baina Mondragoen ez zuen lurrik aurkitzen. Beste norabaitera joango zelakoan, udalak Asam erostea erabaki zuen.

Bestetik, Cerrajera inguruak urbanizatzeko akordioa ere sinatu zen. Cerrajera Etxebizitzak enpresa arduratuko da lanok egiteaz.

Galtzada harriak

Haresiz kanpoko lanen ondorioz, udalak 10 edukiontzi bete galtzada harri batu ditu. Berrito erabili behar ez dituzenez, eta herritarren edo enpresaren baten intereskoa izan daitezkelakoan, harriok salgai jartzea erabaki du udalak. Gutxi gorabehera 100 metro koadro estaltzeko beste harri dago. Dena dela, ez dago zertan denak erosi; nor bere interesaren arabera posible da kopuru jakinak erostea. Prezioa ere jarri barik dago, eta, beraz, interesatuta dagoenak egin beharko dio eskaintza udalari. Informazio gehiago nahi izanez gero, udaleko bulego orokorrean galdetu.

Gaitzespen bilkura



Astelehenean Luis Portero Andaluziako fiskal buruaren aurka izandako atentatua gaitzesteko, bilkurak egin ziren Mondragoen martitzenean. Eguerdian, udaletxearen aurre-

an elkartu ziren hainbat zinegotzi eta herritar. Iluntzean, berriz, 20:00etan, betiko moduan, Lau Kalen bildu ziren herritarrak, Gesto por la Paz taldeak deituta.

Jarlekuak, non?

Lanak egiten ari direnez, Maisu Arano plazako gauza guztiak erretiratu egin behar izan dituzte, tartean, frogarako zeuden zazpi jarlekuak. Eta jarlekuak, behintzat, ez dira Maisu Aranora itzuliko. Betidanik egon izan diren eserlekuak ipiniko dira Maisu Aranon, horietatik ei direlako jendeak eskatutako baldintzak betetzen dituzten bakarra.

Baina, orain arte ikusi ditugunak, udalak erositakoak dira eta Maisu Aranora itzuli behar ez badira ere, herriko beste zenbait gunetan ikusiko ditugu: Eskualdeko Ospitalearen parean, Monterronen aurrealdean eta Uarkape inguruan, esaterako.

Parkea

Nao Santiago kaleko haur parkean egin beharreko lanak COPRISA enpresak egingo ditu. Halaxe erabaki du aste honetako Gobernu Batzordeak. Ia bi milioi pezeta gastatuko ditu udalak lanok egiten.

1.000 bidean

Erdira iritsi dira dagoeneko AED, EHE eta AEK, justiziari justizia eskatuz kanpainarako sinadurak batzen. Astelehenean 565 sinadura zituzten eta beste 15 edo 20 egunez bilduko dituztenekin, 1.000 sinadurara iritsiko direlakoan daude. Egun horietan lantegiatar eramandako orriak batzeko dituzte. Bestalde, oraindik sinadura orria beteta entregatu barik duenak, AED zein AEKren egoitzez gain, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz eta Irati tabernetan ere eman ditzakete.



3.000KOA, SAKELARA!

Urtero egiten dute arrasatear hauek Piriniotan 3.000koren bat. Aurten, Gran Facharen tontorra egin dute, 3.005 metrokoa. Argazkian Jabier Larrañaga, Rikardo Azurmendi, Jose Madina, Roman Gonzalez, Iñaki Alberdi eta, goian, Oskar Untzurruntzaga agertzen dira. Julio Martinek atera zuen argazkia.

ZORIONAK CANDIDO!

100 urte bete zituen urriaren 3an Candido Moralejak. Cuencakoa jaiotzez, Arrasaten bizi izan da 1968tik. Udalak eta Foru Aldundiak zoriondu zuten, eta ilobez eta birbilobez inguratua ospatu zuen Candidok urtebetetzea.




MOTXILA ONDO BETE, ETA AURRERA!

Urriaren leian egin zen Aramaion Aitor Aranaren omenezko IV. Mendi Ibilaldia, Orixol Mendi Elkarteak antolatuta. 36 kilometrori aurre egiteko, ondo hornituta irten ziren mendizaleak goizeko 8:00etan.



PUB HAIZEA



Danona
KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1 - Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Igeltsoak - Apaintzea

Pako eskaiolak s.l.

Markulete, 14

Tel.: 943 77 08 21

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**

Tapizeriak

Konrado

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

Eskatu aurrekontua.

Nafarroa etorbidea, 23 MI11

Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03

EGIA

iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora



ERRETIRATU UMORETSUENAK

Joan den larunbatean Aretxabaletako erretiratuei omenaldia egin zieten. Goizean meza entzun eta gero, salda hartzeko elkartu ziren Basotxo egoitzan. Bazkaria ere izan zuten herriko pilotalekuan eta gero, gazte denboretan bezala, dantzara. Zahartzaroan, umorea faltan ez Aretxabaletan!

Joan den igandean txakurrik azkarrenak ezagutzeko aukera izan zuten Cerrajerako hondakinetera hurbildu zirenek. Salbamendurako txakurrak ibili ziren han, hainbat froga egiten. Txakurrak artzain belgiarrak ziren.



Hezkidetzaz ikastaro teoriko praktikoa

AUKERA BERDINTASUNERA BIDEAN...

Helburuak: Hezkidetzan, oinarriko prestakuntza jasotzea. Eskola esparruko familiei zuzendutako proiektuan praktikaldia egitea.

Norentzat: Hezitzaile moduan lanean ari den edo prestakuntza duen persona interesatuentzat (irakasletza, gizarte lana, soziologia, psikologia ikasketak burututa edo karrerako azken urteetan).

Emaila: Urtxintza astialdiko eskola.
Noiz: 2000-2001 ikasturtean, urtik ekainera. Urtitik abendura prestakuntza teorikoa (24 ordu) eta urtarrilatik ekainera praktikaldia (36 ordu).



Informazioa eta izen ematea Arrasateko Udaleko Emakume edo Hezkuntza Sailean **urriaren 18ra arte** 943 79 09 00 edo 943 79 41 39 telefonoetan.



ARRASATEKO UDALA Emakume Salla ■
Hezkuntza Salla ■

Lore

• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Hezkuntzaren bidez herriak aurrera bidean

Donostiako Seminarioan ikasketak amaitu berri zituzten Jose Mari Mendizabalek, Jabier Mendizabalek, Juan Garaik eta Antonio Mendiluzek. Arrasatearrak ziren guztiak, oso gazteak -24 bat urte-, eta, gazte oro bezala, ilusioz eta gauza handiak egiteko gogoz beteta. Sasoi hartan, Ekuadorreko Los Rios zonaldeko misioak indar handia zuen, eta bere itzalean beste hainbat kokagune sortu ziren. 1959an, traman-kuluak hartu eta Venezuelara joan ziren, beste sei gazte gipuzkoarrekin batera, horien artean Txomin Armendariz eskoriatzarra. Eurek zabaldu zuten hango misioa, Mirandako estatuan. 1963an, beste abade mondragoetar bat joan zen, Felix Ormaetxea, eta hurrengoan, Anton Markaide. Elizgizonekin batera, sekularrak joan ziren: mondragoetarren artean, besteak beste, Jabier eta Juan Jose, Antonioren anaiak, euren emazteekin. Guztira, 60 euskaldun

Itxaropena izatea ondo dago, baina arazoak konpontzeko eskatu eta itxaron baino zerbait gehiago egin behar izaten da. Hori ondo

zekiten gure historia honetako protagonistek, orain 50 urte Hego Amerikara misiotan joan ziren hainbat arrasatearrek.



Kalean, txabola artean, ematen zuten meza.

“Galdera piztu nahi genuen eurengan. Sekula ez genuen misiolari hitza erabili gutaz ari ginenean”



Oso elkartuta zeuden misioko abade guztiak.

pasa ziren handik.

Gizon haiek ilusioz bete-
ta iritsi ziren Venezuelara.
Eurak ziren misioaren sor-
tzaileak, eta guztia egiteke
zegoen. Kontrastea zen han
aurkitu zuten gizartearen fun-
tsezko ezaugarria: "Zulotik
ateratzen zebilen Venezuela:
aberastasuna banatzearekin,
demokraziarekin eta askata-
sunarekin ilusio handia zuten",
diosku Felix Ormaetxeak,
orduko misiolari batek.

Ilusio handia behar, bai,
errealitate gordinari aurre egi-
teko: "Hor atzean ikusten diren
oilatoki horietan bizi da jende-
a", idatzi zuen Jose Mari
argazki baten atzean. Ixabel
Zuasnabarrek, Juan Jose Men-
diluze arrasatearraren alargu-
nak, honela dio: "Kainaberaz
egiten zituzten txabolak, barru-
koa lurrez eta tabikeak egun-
kari orriekin. Gizonek artoa
lantzen zuten. Familia aldetik,

oso ganora gutxi zegoen: gizo-
nak joan eta etorri ibiltzen
ziren, ume txikiak amarekin
utzita, eta azkenean amonek
hartzen zuten familiaren ardu-
ra". Egun batean lan egin eta
hurrengo egunerako adina
bazuten, piper egiten zuten.

JENDE ONA

Beste edozein misiotan beza-
la, doktrina zabalkundea egi-
tea zen elizgizonen helburu
nagusia, baina ez inposaketa
bezala, elkarrenganako erres-
petua oinarri hartuta baizik.
"Galdera piztu nahi genuen
eurengan, ezertara behartu
gabe. Sekula ez genuen misio-
lari hitza erabili gutaz ari gine-
nean", diosku Ixabel Zuasna-
barrek.

Bertakoen erantzuna zein
izan zen? Bertakoak eta kan-
pokoak, guztiak batera, ager-
tzen dira ospakizunen argaz-
kietan. Mezen, abesbatzen

saioen, bazkarien... eta beste
hamaika ekintzaren isla dira
beste argazki batzuk. Txiro-
tasunaren aurka, alaitasuna
eta bizipoza zen venezuelarren
arma, eta Aste Santuan san-
tuei eskaintzen zizkieten dan-
tzak zenbaitetan aipatzen
zituzten abade mondragoeta-
rrek.

"Jendea oso-oso ona zela
sarritan errepikatzen zuten.
Harrera bikaina egin zieten,
familia handi bat bezala ziren",
diosku Begoña Markaidek.
Azkenean, bere egin zuten
gizarte hura mondragoetarrek:
"Politika kontu guztiak zekiz-
kiten, eta baita kargu bakoi-
tzaren izen-deiturak ere", esa-
ten dute haien senideek. "Ez
zuten edozein mailako politi-
kariengana jotzeko inolako
beldurrik diru eskakizunak
egiteko". Baina, Eusko Jaur-
laritzaren, Caracaseko eus-
kaldunen eta Alemaniako
Gobernuz Kanpoko Erakun-
de baten laguntza izan zen era-
bakigarria. Azken honi esker,
hainbat jeep erosi ahal izan
zituzten.

Jeepena oso gauza beran-
tiarra izan zen. Hasieran, bali-
bide gutxi zituzten: txabolen
artein ematen zuten meza, eta
baten batek oliadura behar
bazuen, edo meza eman behar
bazen herrixkaren batean, zal-
dia hartu eta hara joan behar
izaten zuten. Gero bai, egin
zituzten errepideak, eta horie-
tako batean hil zen Juantxo



Santa Lucia herriko kaleetan prozesioa eta...

Garai gaztea, auto istripuz; zar-
tada galanta izan zen hura
bere lankideendako.


ASKATASUNERAKO GILTZA

Baina, doktrina zabaltzea bai-
no, bertakoei laguntzea zen
misioaren lehentasuna. Laster
konturatu ziren misiolariak
modu bakarra zegoela jende
hura aurrera ateratzeko: "Hez-
kuntzaren bidez bultzatu behar



Jose Mari Mendizabal Eukaristia ematen.

**"Aberastasuna
banatzearekin,
demokraziarekin eta
askatasunarekin
ilusio handia zuen
Venezuelak"**



Kainaberaz eta lurrez egiten zituzten venezuelak...



saioa. Ospakizunetan, bertakoak eta misiolariak batera irteten ziren.

zen herria; hezkuntza izango zen askatasunerako giltza”, dio Felix Ormaetxeak. Jakina, proiektu horiek guztiak ahalbidetzeko dirua behar izaten zen, eta hori ez zuten soberan euskaldunek. Hala ere, beti baikor zebiltzan, hasieran bai, behintzat. “Proiektu berri batean sartuta gabiltza, eta bolivar piloa zorretan utzi ditugu, baina tira, Jainkoak

emango du!”, izaten ziren Jose Mari Mendizabalen hitzak.

Euren egoera eskasa bazen, are okerragoa herriarena. Venezuelako enpresa eta negozio gehienak atzeritarren esku zeuden, bertakoen kontura dirutzak egiteko, eta amorrua pizten zuen horrek venezuelarengan. Ekonomia herriaren esku ipini nahi zuten misiolariak, kooperatiben eredu gogoan zutela. Baina, horretarako, hezi egin behar zituzten. Eta lortu zuten emaitzarik, bai: Bokazio Eskolak

“Bolivar piloa zorretan utzi ditugu, baina tira, Jainkoak emango du!”, izaten ziren Jose Mari Mendizabalen hitzak.



etxeak.

eta Eskola Profesionalak, bertako gizon-emakumei hainbat ogibide irakasteko. Bokazio Eskoletan, tresnak eta ogibideak irakasten zizkieten; Eskola Profesionaletan, teknika arloetan trebatzen zituzten, hango enpresak elikatzeke. “Oso tekniko onak irten ziren, enpresak gustura hartzen zituztenetarikoa”, gogoratu du Felix Ormaetxeak. Gainera, bertako antolakuntza bertakoen eskuetan erabat uzteko, venezuelarrak ekarri zituzten Mondragoera, hemen irakasletza ikasi eta buelta zitezten. Bitartean, eskoletaz arduratzeko sekularren etorrera mardulagoak sustatu zituen Felix Ormaetxeak: heroi bezala joaten ziren elizgizonena baino, bokaziodun jende arruntaren premia zegoen.

GAUR EGUN

Baina, urteak joan ahala, giroa aldatu egin zen. Venezuelako politikarien azpijokoek eta gestio txarrak, gutxi batzuek aberastasun guztiak pilatzeak, misiolarien gogoan apaltzen joan ziren. Kontuak kontu, 1971-1976 urteen bitartean bueltatu egin ziren arrasatear elizgizon gehienak, 12 eta 17 urte bitartean han jardun ondoren; sekularrak epe motzgorako joaten ziren. Ordudanik, bide desberdinak jarraitu izan dituzte: batzuek sekularizatu egin ziren eta oso bestelako

lanei ekin zieten, besteek irakasle moduan jardun zuten hil arte... Bakar batek jarraitu zuen Venezuelako Txomin Armendariz eskoriatzarra kasu. Eta misioarekin zer geratu zen?

Galdetutako guztiek diote gauza bera: ikastetxeak izan ziren misioaren ekarpen handiena. Ikastetxe horiek zabalik diraute, Fe y Alegria GKE-ren zuzendaritzapean. Gaur egun, Hego Amerikako 13 herrialdetan dago hedatua Fe y Alegria.

Han izan direnek nekez ahaztu ahal izan dituzte hainbeste esperientzia, hainbeste poz eta zailtasun. Kezkatuta daude hango berriak entzutean: jende guztiak Caracasera jotzen duela eta pobrezia gune erraldoi bihurtzen dabilela... Han dirauenak, Txomin Armendarizek, ez zuen batera begi onez ikusten Venezuelaren eraldaketa. Beste batzuek, aldiz, ikuspegi itxaropentsuagoa dute: “Lehen, misioen goraldia bizi izan genuen. Apostolutza egin eta ahal zutenetan laguntzera joaten ziren. Baina, lehen misioek egiten zutena, orain Gobernu Kanpoko Erakundeek egiten dute”.

Leire Kortabarria



Erreperiderik ez zegoenez, zaldiz ibili behar izaten zuten.

LUIS MIGUEL SAENZ (ELA-KO METAL ARLOAREN ARDURADUNA)

“Kultura aldatu behar da”

Badira norberaren lanbidea txikitatik zein izango den dakitenak, oso argi ikusten dutenak zein den euren egin-beharrak. Horietako bat dugu Luis Miguel? Saenz azkoi-tiarra. 22 urte daramatza ELAn, baina lehenagotik hasi zen bidea egiten: “8 urte eman nituen legez kanpo ELAn lanean, ELA legez kanpoko zenean”.

Emaztea bergararra du eta horrexegatik dabil Deba-goienean lanean. Bailarako arduradun izan ondoren, gaur egun metala da bere ardura.

— Zer aldatu da sindikatuan?

— Duela 22 urte ezagutza gehiegi barik hasi ginen lanean, frankismotik atera berri ginelako; ELAk izugarritzko arazo ekonomikoak zituen, eta azpiegiturak ere nahiko ahulak ziren. Orduetik hona, eta jasotako esperientziak lagunduta, asko indartu gara eta hoberantz egin dugu. Handi-

tuz joan gara urtetik urtera.

Industriak ere azken 5-6 urteetan aldaketa sakonak jasan ditu, teknologian eta produktuetan adibidez, enpresa txiki asko zabaldu da... Gure lana horri egokitu behar izan diogu.

— Metalean zabilta orain; bailaran zelako egoera dago?

— Ona. Orokorrean enpresak diru asko irabazten dabilta, hedatzeko politikak lantzen... Kanpora begira, ona.

Baina, barruko egoera oso kezka-garria da. Gaur egun langileen artean desberdintasunak daude, maila ezberdinetakoak dira eta soldatak ere mailaren arabekoak dira; era berean, emakumeak enpresetatik irteten joan dira eta ez dira berriak hartu. Kontratuak dagokienez, enpresa askotan Hirugarren Munduko politikak ezartzen ari dira: hiru txanda, aldi baterako kontratuak...

Langabezia egoeraz

aprobetxatu dira. Baina, enpresak diru asko irabazten ari dira eta bada ordua langileek ere hori igartzeko, teknologia berriak ezartzeko...

— Egoera horrek zein eragin du gizarteetan?

— Bereziki kultural eragiten du. Jendeak uste du hobeto dela ahalik eta gehien produzitzea eta ahalik eta gutxien gastatzea. Hori horrela izanez gero, Hirugarren Mundua aberatsena litzateke eta ez da horrela.


Eko-
nomiaren benetako moto-
rre-

tako bat, adibidez, Alemania da, eta han soldata altuak daude, produkzio aldetik lehiakorrak dira... Hori da kulturalki barneratu behar dena.

Hemen, berriz, gazteek hainbat urte itxaron behar izaten dituzte lana topatzeko; gero, nahiz eta prestakuntzarik hoberena izan, lanik txarrenak berri egokitzen zaizkio, ezin du protestarik egin, baldintza eskasak daude lantegietan... Garbitzaile izateko ere LH-2 eskatzen da gaur egun! Enpresarioren pentsaera aldatu beharra dago. Kultura aldatu beharra dago.

— Emakumeak ere eskas...

— Erretiratu diren emakumeak



“Enpresak diru asko irabazten ari dira eta bada ordua langileek ere hori igartzeko”

...a dago”

kumeen orde, gizonak sartu dira. 1973. urtetik hona, enpresa askok ez dute emakume bat bera ere hartu. Noski, emakumeak “arazo” gehiago sortzen ditu, umeak izaten ditu, baja hartzen du... Horiexek dira ematen dituzten arazoak.

— Esaten da bailara honetan langabezia tekniko dagoela...

— Gobernuak eta patronalak langabeziari buruz berba egiten dutenean, estatistikak bakarrik erabiltzen dituzte, eta horien arabera, langabezia jaitsi egin da. Baina, emakumeendako, adibidez, langabezia dago; are gehiago, emakumea lanerako ez hartzeko pentsamoldea dago.

Gazte mordoa langabezian dago, bereziki karreradunak... Lana topatzen badute, soldata txikiak dituzte... Datuetan hasi gara ikusten zenbat familia pobre dauden. Eta hori dena une historiko batean, sekulako irabaziak daudenean...

— Sindikatu arloan zein harreman duzue hemen?

— Nire ustez asko hobetu da. Hasieran, esperientzia gehiegi ez geneukanean, geure artean lehia ibiltzen ginen, nor bere sindikatuaren alde.

Sindikatu euskaldunondako urte aberatsak izan dira. ELA eta LABen artean gauza asko egin ditugu batera; eta gure helburua da bide horretan gero eta gogorrago egitea. CCOO eta UGTekin ere ondo konpontzea nahiko

genuke. Horretarako bi baldintza ipini izan ditugu beti: batetik, Euskal Herriak bere nortasuna duela eta lan arloan ere berezitasunak ditugula. Euskal Herrian langileak egoera onean badaude, guk sortu dugulako da; ez digute ezer oparitu. Beraz, Euskal Herria esparru berezi bat dela onartu behar dute.

Bestetik, gehiengoan onartu behar dute eta gaur egun ez dute egiten.

— 35 orduko astea aldirikatu zen iaz; nola doa?

— Europako herri askotan ezarri dira eta zenbait administrazioetan 32 orduko astea dago. Argi dagoena da 35 orduak enplegua sortzeko direla. Urtean langileko 130 ordugutiago egitea da asmoa. 270 langileko enpresa batean, 20 pertsona berrirrentzako lana litzateke.

Teknikoki eta ekonomikoki posible da, eta hori enpresarioaren buruan sartzea da helburua. Baina, enpresarioak produkzio bera nahi du jende kopuru laurdenarekin.

— Zerbait gehiago esan nahi baduzu...?

— Esperantzarako mezu bat eman nahiko nuke. Politikoki oso egoera zaila bizitzen ari gara, eta hori, denean igartzen da. Dena dela, adierazle ekonomikoek erakusten dute ekonomia ondo dabilela, eta hori horrela izanda, ni ziur nago lehenago edo geroago hainbat eskaera sozial lortuko ditugula: 35 orduak, emakumeendako lana... ■

EMAKUMEON TXOKOA

Hezkidetzak ikastaroa

- **Helburua:** hezkidetzan oinarritako prestakuntza jasotzea eta praktikaldia egitea
- **Norentzat:** hezitzaile moduan lanean ari diren edo prestakuntza duten pertsona interesatuentzat (irakasletza, giza zientziak, gizarte zientzietako... azken urteetan)
- **Nolaz:** 2000-2001 ikasturtean, urritik ekainera.
- **Informazioa eta izen ematea** Udaleko Emakume edo Hezkuntza Sailean urriaren 18ra arte.

Lan orientabide ikastaroa

- **Helburua:** norberaren lanaren proiektua osatzea eta lan orientabidea jasotzea
- **Norentzat:** lehen mailako ikasketak duten emakume langabetuei zuzenduta
- **Epea:** urriaren 18ra bitartean
- **Ordutegia:** goizez (9:30-12:30) astelehen, asteazken eta ostiralean

Literatura edo irakurketa tallerra Monterronen

Irakurtzea gustuko duen taldea bilduko da urritik maiztera bitartean Monterronen.

- Hilero liburu baten kritika egingo da. Idazle, liburu eta literatur testuinguruari buruz hitz egingo da modu arin eta ulergarrian. Eta ostean, elkarrizketa izango da, eztabalda eta galderak.
- Aurkezpen saio irekia urriaren 25ean, asteazkena, arratsaldeko seiretan Monterronen.

Hazkunde pertsonala

- **Helburua:** nor bere ezagutza eta talde harremanak lantzea
- **Ematea:** Pepa Bojo psikologoa
- **Ordutegia:** 17:00etatik 19:00etara, asteartetan

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sailean: deitu 943 79 09 00 edo eta 943 79 41 39 telefonoetara. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara. Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■



Maritxu 2000!

Ohiturak beti ohitura



ALARDEA ARRASATEN!



Hondarribiako Alardean ezin, eta azkenean, Arrasaten desfilatu zuen Jaizkibelek, gizon eta emakumeon konpainiak, Maritxuren eta herritar askoren aurrean. Zapatu gauean, irainak baino, txaloak eman zizkieten Jaizkibelekoei. Ez da, ez, mirari txikia!



Lan orientabide ikastaroa

■ HELBURUAK:

- Proiektu profesionala zehaztea eta lana topatzeko orientabidea hartzea.
- Informazio jasotzea lan merkatuari buruz, balaibidei buruz, lan aukerei buruz...
- Flexibilitatea eta norberaren bailabideak areagotzea lana topatzerakoan.

■ **NORENTZAT:** graduatu eskolarra edo lehen mailako ikasketak dituen emakume langabeentzat.

■ **TOKIA:** IMI ko lokala, Arrasate Pasealekuan.

■ **ORDU KOPURUA:** 42 ordu talde lantegia, 26 ordu bakarreko orientabide, eta 20 ordu segmentua.

■ **ORDUTEGIA:** goizez 9:00tik 12:00tara.

■ **NOIZ:** urrian hasi eta abendua bitartean.

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:


Arrasateko Emakume Sailean, telefonoak:
943 79 09 00 edo 943 79 41 39.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sails ■

SASKIBALOA Hirugarrenean bai



Denboraldi hone-tako hirugarren neurketa eta etxe-an jarraian jokatzen zuten bigarrena. Aurkaria, Bilboko Profusa Leioa. Azken emaitza, 103 - 77. Ez dago gaizki, ez!


Kenci Arrasate nagusi izan zen partidaren hasieratik. Aurkariek ezin izan zuten ezer egin herrikoek ezarritako joko erritmoari aurre egiteko eta markagailuko bi taldeen aldeak goranzko bidea izan zuen partidaren zehar. Lehenengo bost minutuetan, 14 eta 7; bigarren laurdenaren amaieran, 63 eta 35. Orduan, tarte 19 puntura jaitzi zen, zonako defentsa erabiltzen hasi zirelako kanpo-koak. Baina, horri ere ondo egin zioten aurre etxekoek eta berriz ere aldea 26ra igo zen.

Saskiratzaileak honakoak izan ziren: Gamarrak 14, Lazpiurrek 18, Mallabiabarrenak

17, Aiastuik 7, Errastik 2, Kintanak 6, Basurkok 13 eta Gorostidik 26.

Asteburu honetan Iruñean jokatuko dute Erro Eugi taldearen aurka.

ESKUBALOA Maritxuren ajea



Horixe pentsa zezaketan joan den igandean Iturripen egon zirenek.

Arrasate Almen eskubaloi taldeak denboraldiko lehenengo partida jokatuko duen eta aurreneko porrota jasan zuen. Baina, porrota ezin gogorragoa izan zen. Hogei goleko aldeaz irabazi zuten Alle-rrukoek. Azken emaitza, Arrasate Almenek 12 - Allerruk 32.


Aspaldiko partez, partidarik txarra izan ei zen igandekoa. Bernardo Balerdik berak ere ezin izan digu gertatukoaren gainean azalpenik eman: "gertatu zena sinesgaitza izan zen, lotsagarria".

Asteburu honetan, zubia dela eta, jai izango dute eta hurrengo partida urriaren 22an jokatuko dute Loiolan.

Beste taldeei dagokienez, gazteek galdu egin zuten Bergaran. Hauek ere Maritxuren biharamunaz aritu ziren. Zortzi penalti kanpora jaurtiki zituzten, atera gerturatu barik. Azken emaitza, Bergarak 23 - Arrasatek 19.

Kadeteak izan ziren, beraz, eskubaloi taldeen artean onenak. Aloña Mendiren aurka jokatuko zuten, hauek ere Iturripen. Eta hauentzat ere, aurrekoentzat bezala, denboraldiko lehenengo partida izan zen, baina hobeto hasi ziren, 19 eta 15 irabazi baitzuten.

FUTBOLA Gehiago ezin



Bana berdindu zuten lehen erregionaleko neskek joan den asteburuan Atxabalpen. Irabazteko aukerak

izan zituzten, joko hobe egin zutelako etxekoek eibartarren aurrean. Lehenengo zatia 0 eta 0 amaitu zen eta bigarren zatia hasi eta berehala, Alaitz Etxabek Mondraren gola sartu zuen. Alaitzek ia urtebete zeramatzen golik sartu barik. Aurreko denboraldian min hartu zuen eta ebakuntza ere egin zioten. Ondorioz, oraindik ez du partida osorik jokatuko. Baina, joan den egunean hamabost minutu nahiko izan zuen partidako lehenengo gola sartzeko. Eibartarrak taldeak berdinketaren gola egin zuen, partida amaitzear zegoela; hori dela eta, etxekoek ezin izan zuten berriro aurre hartu eta berdinketarekin amaitu zen partida.

Hurrengo partida Zubian, Elgoibarren, jokatuko dute. Esti Loitik ezin izango du taldeko titular guztiak berarekin izan eta "kontuan izanik Elgoibarkoa oso futbol zelai handia dela, ikusi egin beharko da zelan ateratzen diren gauzak".

Emaitzak

FUTBOLA

- **Lehen erregionaleko mutilak:**
Gazteak 1 - Mondra 1
- **Lehen erregionaleko neskek:**
Mondra 1 - Eibartarrak
- **Lehen mailako gazteak:**
Arrasate 3 - Sestao 1
- **Bigarren mailako gazteak:**
A. Ondarroa 4 - Arrasate 0
- **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate 2 - Lagun Onak 1
- **Bigarren urteko kadeteak:**
Mondra 4 - Eibartarrak 0
- **Ohorezko infantilak:**
Antiguakoak 2 - Arrasate 0

ESKUBALOA

- **Seniorrak:**
Arrate Almen 12 - Allerru 32
- **Gazteak:**
Bergara 23 - Arrasate 19
- **Kadeteak:**
Arrasate 19 - Aloña Mendi 15

Jokatzekoak

FUTBOLA

- **Lehen erregionaleko mutilak:**
Mondra - Orioko (ostegunean, 16:30ean)
- **Bigarren mailako gazteak:**
Arrasate - Urki (igandean, 11:00etan)
- **Ohorezko infantilak:**
Arrasate - Elgoibar (igandean, 16:00etan)

ESKUBALOA

- **Seniorrak:**
Arrate Almen - Legazpi (ostegunean, 12:00etan)

Aretxabaletar olinpikoa

Sidneyko olinpiar jokoetan, elbarrien txanda da. Joseba Larrinaga kirolari atxabaltarrak bertan egoteko aukera dauka eta asteartean hartu zuen Australiarako bidea. Bere bigarren olinpiar jokoak izango dira, izan ere Atlantian egon zen maratokia eta 5.000 metroko lasterketa jokatzen, eta handik emaitza benetan onak ekarri zituen: zilarrezko domina maratokia eta 5.000 metro-tan bosgarren izan zen eta diploma olinpikoa ekarri zuen etxera.

Joseba Larrinagak 32 urte ditu eta sasoi dagoela aitortu digu behin eta berriz. 1998an, Birminghamen munduko txapelketako maratoko azpitxapeldun gelditu zen.

Sidney ere maratokia eta



5.000 metro-tan arituko da horretarako jo eta su aritu baita entrenatzen.

Ea, bada, Atlantian lortutakoa hobetzeko aukera duen; izan ere, agian bere azken olinpiar jokoak izango dira.

Kenci Arrasate saskibaloit taldea

Kenci Arrasate taldeak aste-buru honetan denboraldiko hirugarren partida jokatu du. Eta azkenean irabazi egin du. Jokalari guztiak, bat izan ezik, iazko berberak dira, baina aurten hamar jokalarik osatzen dute taldea.

Horrela, bada, Lander Errasti entrenatzaileak jokalarari lanak ere egin ditu. Kanpoan hasi zuten denboraldia

eta azkenengo bi partidak etxean jokatu dituzte.

Iturripen aritu ziren Bilboko Profusa Leioa taldearen aurka. Lander Errastiren taldeak garaipen eroso eskuratu zuen. Emaitzak berak dena esaten du: Kenci Arrasate 103 - Profusa Leioa 77.

Aurten ere Lander Errasti ari da entrenatzaile lanetan.

Arrasate Saskibaloit taldeko beste taldeei dagokienez, urriaren 14-15eko aste-buruan hasiko dute denboraldia. Kadete mailako mutilekin Migel Anjel "Piti" arituko da entrenatzaile lanetan.


Kadete mailako neskekin Jose Mari Sanchez "Txema" eta juniorretan, berriz, Ricardo eta Julen Vicente arituko dira. Aurten, gainera, 23 urte

azpikoen beste talde bat ere eratu dute eta Davila arituko da entrenatzaile.

Bitartean, hona hemen Kenci Arrasate talde nagusia. Aste-buru honetan Iruñeara joango dira Erro Eugi taldearen aurka jokatzera. Arerio gogorra dira iruñearrak, beraz, mondragoetarrek ere gogor ekin beharko diote partidari.



Raul Moreno
25 urte
antolatzailea




Danel Aiastui
28 urte
antolatzailea



Jagoba Gamarra
23 urte
hegalekoa



Jokin Lazpiur
20 urte
hegalekoa



Jon Basurko
31 urte
hegalekoa



Gorka Kintana
19 urte
hegalekoa




Ander Mallabiarrena
23 urte
pibota



Iker Errasti
23 urte
pibota



Eneko Gorostidi
29 urte
pibota



Lander Errasti
32 urte
entrenatzailea

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07



EGUZKIGRAF →
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4
Finca: 791844
Fax: 792941

ALMACENES ARRASATE 

Furgoneta duen
langile bat behar dugu

Tel.: 943 77 13 52
943 77 00 34

Gaztetxuloren aurkezpena Arrasaten



Iazko otsailean sortu zuen Donostiako Irutxulo aldizkariak Gaztetxulo gehigarria. Orain arte, Donostialdean baino ez zen argitaratzen, baina Euskal Herri osoko kioskoetan dago salgai orain, 300 pezetan. Gaztetxulo aurkezteko, Euskal Herriko hainbat lekutan izan ziren arduradunak, eta eguenean izan genituen Arrasaten.

HARRERA ONA

Ander Usabiaga da Gaztetxuloren arduraduna, eta bere esanetan, "aldizkariak oso harrera ona izan zuen, 10.000 ale ateratzen genituen hilero; bestalde, gazteengan euskaraz irakurtzeko ohitura indartu nahi dugu". Arduradunek esaten duten bezala, gaia edozein izanda ere, euskara naturaltasunez erabil daitekeela erakutsi nahi du Gaztetxulok.

Musika, sexua, literatura, internet eta beste hainbat gai landuko ditu Gaztetxulok, eta lehenengo zenbaki hau da aniztasun horren adibide: Fermin Muguruza, kalamuaren inguruko eztabaida, euskaldunok eta sexua eta euskal futbolaren urte onenak dira hizpide, besteak-beste.

Beste bi emanaldi eskainiko ditu Arrasaten Kultur Errotak

Pozik daude Topaguneako arduradunak Kultur Errota egitasmoak oraindano eman dituenarekin; horrelaxe adierazi zuten Gasteizko Goiuria Jauregian joan den astean eskaini zuten prentsurrekorean. Maiatzetik gaurdaino, 51 kultura emanaldi eskaini ditu Kultur Errotak, eta abendura bitartean beste 100 egiteko asmoa du Euskal Herri osotan. Horietatik bi, Arrasaten izango dira.

ARRASATEN, 20AN

Kalitatea izan da, eta izango da, emanaldi horien ezaugarria, eta kultur gile ezagunen eta berrien arteko oreka gordetzen saiatuko dira. Arrasaten ere izan dugu ezaugarri horiek egiaztatzeko hainbat aukera, eta laster asko emango digute beste bat: datorren egubakoitzean, hilaren 20an, Uztail Oparo Ostean taldeak



Euskaldunon Egunkaria

Harkaitz Canok eta bere taldeak bisitatuko dute aurki Arrasate.

emanaldia eskainiko du Amaia Antzokian, 22:30ean. Harkaitz Canok, Igor Kaltzadak eta Iñigo Lurgainek osatzen dute taldea.

Euskara elkarteek ere iritzi ona agertu zuten orain arteko emaitzen gainean. Aurten,

20 elkartetik gora hartuko dute parte lehenengo aldiz Kultur Errotan. Orain arte, emanaldi gehienak Gipuzkoan eta Bizkaian egin dira, eta gainontzeko euskal lurraldeetara hedatzea da Topagunearen erronka.

Bizkaiko ikuspegi bat Toki-Ederren

Hilaren hasieratik, erakusketak berria dugu aukeran San Andresko Toki-Eder kafe-tegian. Mila Ocerin margolari leioarra izango da urriko protagonista, 18 oleoko erakusketarekin.

HIRIAK ETA PAISIAK

Bizkaiko herri eta parajeak erakusten dizkigute oleo horietatik gehienek; paisaia hiritarrak batzuk, Bilbo edo Portugalete bezala, baina baita bukolikoagoak ere, hala nola, basoak, edo itsasadarren gainean marrazten diren argi jolasak. Bizkaiko



ikurrak ditugu ikusgai margo hauetan.

Leioako udal tailerretan hasi zen marrazketa eta margogintza ikasten Mila Oce-

rin, eta hainbat ikasketa estudiantatik pasa da. Orain arte, Bizkaian egin diren taldekako erakusketetan parte hartu izan du.

JON ANDUEZA (ZUZENDARIA)

“Galduta daude elkartasuna eta laguntzeko borondatea”

Kazetaritza ikasketak egin zituen, eta horretan jardun izan du Jon Andueza mondraoetarrak urte askotan, ARKOn eta ETBn. Orain, aldiz, zinemagintzan sartuta dabil buru-belarri: bi film laburren eta telefilmaren bat edo besteren arduradun izan da. Aljeriara eraman du oraingoan bere irrika horrek.

—Zein da proiektua?

—Gurutze Irizar erizain ormaiztegiarra, Tindufeko sahararren errefuxiatu eremuan bizi izan zen 14 urtez. Saharar batekin ezkondu zen eta Ormaiztegin bizi da gaur egun. Berari buruzko dokumental bat grabatuko dugu.

—Zein da zuen lan egitaraua?


—Urriaren 21era arte Tindufen (Aljelian) izango gara, filmatzen. Hori izango da zati garrantzitsuen. Bueltan, Ormaiztegi eta Zaldibi aldean filmatuko dugu beste zati bat. Ondoren, montatu egin behar da. Gabonetarako bukatua egotea espero dugu, baina litekeena da atzeratzea.

—Nola sartu zinen proiektu honetan?

—Donostiako Orio Produkzioak ekoiztetxeak izan zuen Gurutze Irizarren inguruko dokumentala egiteko ideia, eta nigan pentsatu zuten zuzendaria izateko. Hori behar izaten da zuzendari izateko, bateren batek aukera bat ematea, niri Oriok eman didan bezala. Eta konfiantza hori ondo ordaintzea espero dut.

—Zein izango da dokumentalaren egitura?

—Ahalik eta modu erakargarrienean nahi dugu Gurutze Irizarren historia



kontaktua. Horretarako, berarekin elkarrizketak agertuko dira, eta baita berak emandako informazioan oinarritutako testua ere. Gainera, Gurutzeren semea eta alaba agertuko dira eta hainbat galdera plazaratuko dituzte. Horrek ez du esan nahi saharar herriaren historia agertuko ez denik, baina beti Gurutzeren bizipenak oinarri bezala hartuz. Izan ere, urte askotan oso egoera txarrean bizi izan den herria da sahararra: euren lurra kolonizatu dute, eta orain erbestean bizi dira, etxera bueltatu ezinik. Oso herri interesgarria aurkitzea espero dut.

—Zergatik aukeratu da historia hori?

—14 urtez elkartasuna eta laguntzeko borondatea erakutsi zituelako emakume horrek. Gaur egun galduta dauden balore horien arabera bizi izan zen Gurutze Irizar, une latzak pairatzen ari zen herri bati laguntzen, eta hori islatzeko asmoa dugu. Baina, gero, hasierako asmoa zenbatean alda dezaketen gauza berriak aurki ditzakegu han, Tindufen.

“Bateren batek aukera bat ematea behar dizu zuzendari izateko”

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

- 2000-2001 ikasturterako lan-kidetza-bekak. Epea: irailak 29.
- Gizarte Ekonomiako enpresatan (kooperatibetan) bazkideak sartzeko diru laguntzak. Epea: irailak 30.
- Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eskumenekoak diren gaietan, europar politika arloan prestakuntza eta ikerkuntzarako bekak. Epea: urriak 4.
- 2000-2001 ikasturtean uni-bertsitateaz kanpoko ikasketalaguntzetarako deialdia. Epea: urriak 31.
- Unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak batzuketarako diru laguntzak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: urriak 31.

■ LANA

- Bilboko Arriaga Antzokira-kon zuzendaria behar da. Epea: irailak 18.
- Oñatiko liburutegian, haur liburutegiko arduraduna behar da. Epea: irailak 19.
- Orioko Udalak kirol teknikaria behar du. Epea: irailak 19.
- Huarteko Udalerako kirol koordinatzailea behar da. Epea: irailak 20.
- Lizarrako Udalerako gizar-te langilea behar da. Epea: urriak 11.

■ IKASTAROAK

- Donostiako Hezkide Eskolak urteroko ikastaroak antolatuta ditu: aisialdirako begirale eta zuzendaria, susperketa sozio-kulturala, edadedun pertsonen begiralea, tratu txarrak haurtzaroan, gaixotasun mentala, kale ekintza, hezkuntza interkulturala... eta beste hainbat ikastaro. Programa osoa bulegoan duzu.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Goitb

Goiena Telebista

LARUNBATA, 14

13:30 Asteko saioen errepika:
Gatza eta Berakatza,
Maritxu Kajoi 2000,
Alkatearekin berbetan.

IGANDEA, 15

13:30 Asteko saioen errepika:
Gatza eta Berakatza,
Maritxu Kajoi 2000,
Alkatearekin berbetan.

ASTELEHENA, 16

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Alkatearekin berbetan.**
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
21:30 **Goienasport.**
22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEARTEA, 17

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Goienasport** (errepika).
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**

21:30 **Xeleberri.**
GOITBko mikrofonoekin albiste bitxiak gainera iritziak jasotzen ditu Xeleberrik bailara osoan zehar.



Iratxe Eguen eta Unai Iparragirre.

22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEAZKENA, 18

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Xeleberri** (errepika).
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
21:30 **Aurrez Aurre.**



Edu Mendibil eta Jesus Arantzabal.

Aste honetan Bergarako bi lagun izango ditugu: aurkezlea, Edu Mendibil Berrigarako zuzendaria, eta Jesus Arantzabal txirrindulari ohia.

22:15 **Gatza eta Berakatza.**

OSTEGUNA 19

13:30 **Albiste aurrerapena.**
13:40 **Gatza eta Berakatza.**
13:55 **Aurrez Aurre** (errepika).
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
21:30 **Hamaika Magazin.** Beti bezala erreportaia interesgarriak ikusteko aukera izango dugu. Gainera, Ikatz argazki dendaren eskutik reflex

argazki kamera zoragarri bat irabazteko aukera izango duzu. Deitu 943 71 23 93 telefonora.

22:00 **Soinuz Blai.** Aste honetan aurpegi berria izango dugu GOITBn musika jartzen, Haika Aizpurua eskoriatzarra.



Haika Aizpurua.

22:15 **Gatza eta Berakatza.**

Datorren astean

Sukaldaria:


Aintzane Rementería, Agirrebeña jatetxea (Bergara).

NOIZ

Astelehena 16
Asteartea 17
Asteazkena 18
Osteguna 19
Ostirala 20


PLATERA

Arrain-entsalada beroa.
Zainzuriak espinaka saltsarekin.
Fruta tarta.
Legatz betea.
Txipiroiak plantxan.



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

Kirolaz blai, astelehenero Arrasate Irratian



Jon Basurko eta Alazne Ostolaza.

Joan den astelehenean ekin zion Arrasate Irratiak denboraldiko programazio berriari eta, horrekin batera, kirol tarte berri bat ere hasi zuen, *Jokoz Kanpo*. Garai batean Gorka Etxabek eta Rafa Mungiak zuzentzen zuten saioa itzuli da Arrasate Irratira. Baina, oraingoan Alazne Ostolazak zuzenduko du saioa eta bere alboan Iraia Aginagalde egongo da. Iraia kazetaritza ikasten dabil eta kirolzale amorratua da. Bera ibiliko da asteburuetan partiden jarraipena egiten eta astelehenean Alaznerekin horren guztiaren berri emango digu. Biekin batera, Aitor Oskoz "Pitu" arituko da tekniko lanetan.

KIROL MAGAZINA

Arrasateko kirol taldeen emaitzen berri ema-

teaz gain, Alazne Ostolazaren asmoa kirol magazina egitea da, hau da, "elkarrizketa ugari, herriko kirol taldeei buruzko erreportaiak eta maila guztietako taldeen gertuko jarraipena. Izan ere, *Goienasportek* (GOITBko kirol saioa) izan duen aldaketa dela eta, Arrasate Irratiari egokitu zaio herriko talde guztien jarraipenaren ardura".

**Beraz, badakizue, astelehenero
20:00etatik 21:00etara, kirola
nagusi Arrasate Irratian, Jokoz
Kanpo irratsaio berriarekin.**

arrasate
irratia



ASTELEHENETIK OSTIRALERA

- 09:00 Egunon Arrasate.
- 09:30 Prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, oharrak, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.


LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro eta zu.

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE



IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Pisia salgai Aretxabaletan. 90 m², sukaldea, egongela, hiru logela, trastelekua, bainugela eta sotoa. Tel.: 659 45 05 79.

• Pisia salgai Begoñan. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, terraza handia, berogailua. Tel.: 646 30 53 49 / 636 79 47 61.

• Altxaridun etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 28 18.

• Etxebizitza salgai Erguin auzoan. Tel.: 943 79 99 08.

3. Errentan emateko

• Pisia alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 32 73 / 656 75 83 59.

• Etxebizitza alokagai San Andresen. Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 41 10 (Josefina).

• Gela bat alokagai daukat. Tel.: 943 79 87 59.

• 4 ikaslerentzat etxebizitza alokagai unibertsitatetik gertu. Tel.: 669 83 94 68.

• Erdialdean pisu berria alokagai: 3 gela, egongela, 2 komun, sukaldea eta trastelekua. Tel.: 656 78 69 49.

4. Errentan hartzeko

• Aretxabaleta edo Eskoriatzan pisu bila nabil. Besteekin banatzeko. Tel.: 686 95 56 97.

• Ikasle bat Arrasaten pisu bila. Tel.: 948 46 73 66 eta 945 46 71 24.

• Pisia behar dugu Aramaio, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Tel.: 629 92 48 82.

• Bikote batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 606 75 59 13 edo 653 72 28 94.

5. Etxeak osatzeko

• Lagun bat bilatzen nabil etxebizitza bat betetzeko. Tel.: 943 77 13 20.

• Neska bat behar dugu Sarrikon pisua osatzeko. Tel.: 943 79 48 53 edo 696 86 40 48.

• Neska batek gela bat alokatu nahi du. Tel.: 94 440 58 78 edo 696 88 26 65.

• Neska bat behar da Donostian,

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

Amaran, ikasleen pisu bat osatzeko. Tel.: 943 47 32 67.

• Lagun bat behar dut Arrasaten pisua osatzeko. Tel.: 943 77 13 20 (gauetz).

• Pertsona bat behar da etxebizitza konpartitzeko San Juan auzoan, pre-sazkoa da. 21.700 + gastuak. Tel.: 943 79 23 96.

• Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin. Tel.: 943 80 64 05.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Arimazubi plazan garaje itxia sal-tzen dut. Tel.: 943 79 18 13.

• Erdialdean garaje itxia alokatzen dut. Tel.: 943 79 01 84.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian. 60m² eta 22m²ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

14. Errentan emateko

• Bi lokal alokagai Aretxabaletako Errekabarren kalean. 34m² eta 36m² takoak. Tel.: 943 79 20 48 / 943 77 14 11.

• Lokal bat alokagai Anboto kalean, 75 m², ur eta argiarekin. Tel.: 943 79 98 07. Gauetz.

• Lokala alokagai Erdiko kalean. 65 m², prezio interesgarria. Tel.: 943 77 00 68. Orduetegi komertziala.

LANA

17. Eskaintza

• Emakumea prest orduka lan egiteko. Tel.: 626 626 167.

• Neska prest arratsalde umeak zaintzeko edo orduka lan egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

• Emakumea prest umeak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak eta garbiketarako egiteko. Tel.: 653 72 30 21.

• Taberna batean lan egingo nuke, Arrasate edo inguruan; esperientziaduna. Tel.: 657 70 49 99 edo 657 70 50 00.

• Neska prest umeak zaintzeko arratsalde. Tel.: 943 79 20 55.

• Emakume esperientziaduna etxea garbitzeko edo pertsona nagusi zein umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 77 02 46.

18. Eskaerak

• Taberna baterako sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• 18 eta 35 urte bitarteko jendea behar da hipermerkatuetan produktuak kokatzeko. Interesatuok curriculum bidali ondoko helbidera: Marketing aplicado, Avenida Madrid 121, 3C, 50.010 Zaragoza. Tel.: 976 34 63 61.

• Tabernan lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 943 79 74 09.

• Neska bat behar da sukalderako eta beste bat barrarako. Tel.: 943 79 00 34.

• Esperientziadun ile apaintzaile profesionala behar da. Ikaslerik ez. Tel.: 943 77 13 03 (21:00etatik aurrera).

• Arrasateko arrandegi batean emakume euskalduna behar da goizez lan egiteko. Gida baimena beharrezkoa da. Tel.: 94 682 03 73 edo 943 71 48 61.

• Tabernan sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Emakume bat behar da 5 orduz etxea garbitzeko. Tel.: 653 71 79 00, gauetz deitu.

• Enpresa batek furgonetadun pertsona bat behar du garraio lanak egiteko. Tel.: 943 77 00 34 edo 943 77 13 52.

• Ile apaintzailea behar da. Tel.: 696 44 50 37.

• Emakumea behar dut etxeko lanak egiteko, egunero hiru bat orduz. Tel.: 943 79 43 85. Rosa, 18.30etik aurrera.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Profesionalak prest laguntza eskolak emateko. Tel.: 649 22 51 07.

• Eskola partikularrak ematen dira talde murriztuetan: idazketa-irakurketa, euskara errefortzua eta etxerako lanetan laguntza. LH 1.-6. maila bitartean. Tel.: 619 35 48 44.

• Eskola partikularrak emango nituzke, 1. hezkuntzan edo DBHko lehenengo mailan. Tel.: 943 79 97 87.

21:00etatik aurrera.

- Heziketa Berezian lizentziadunak LH 1etik 6. mailara bitartean, laguntza eskola ematen du. Tel.: 943 79 58 83. Arratsaldez deitu.

21. Eskaerak

- Batxilergoko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako eskolak emateko irakaslea behar da. Tel.: 943 79 28 79. Deitu 19:00etatik 21:00etara. Mertxe.

- Pertsona bat behar da, DBHko lehenengo mailan dabilen neska bati eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 77 15 58.

- DBHko lehen mailako eskola partikularrak emango dituen pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 83 15. 21:00etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

- Opel Kadett 1.4 autoa salgai. SS - AL. Tel.: 667 08 84 84 (Iker).
- Volkswagen Polo diesela 1.9 SS-AX salgai. Tel.: 609 54 16 13.

- Cota 348 motorra salgai. Egoera onean. Prezioa: 150.000 pta. Tel.: 677 42 58 30.

- Seat Panda salgai. Egoera onean. Tel.: 677 42 58 30.

DENETARIK

26. Saldu

- Cocker eta Boxer txakur kumeak salgai. Pedigridunak. Tel.: 696 05 73 46.

- Teklatua salgai, Yamaha ESR-48 modelokoa. Tel.: 943 79 27 65.

- Akordeoia salgai. Tel.: 630 24 52 14.

- Akordeoia salgai, 72 baxukoa, gorri kolorekoa. Blessing markakoa. Tel.: 943 79 36 73.

- "Vaporeto" italiarra salgai, plan-txa eta guzti. Oso egoera onean. Tel.: 943 79 36 73.

- 4 llanta salgai, neumatikoekin batera. Golf 2, 5 palos. Neurriak: 185, 60, R14. Tel.: 646 76 76 52. Xabier.

- 5 gurpil saltzen dira aluminiozko lantekin, Opel Corsa edo Opel Kadetten-

tzat. 20.000 pta. Tel.: 943 79 93 19.

- Ordenadorea salgai, 1997. urtekoa. Ezaugarriak: Pentium 133, inprimagailua eta bozgorailuak. Egoera onean. 95.000 pta. Tel.: 676 73 40 77.

28. Trukatu

- Egoera onean dagoen Seat Panda motor batekin trukatu nahikoa. Tel.: 677 42 58 30.

29. Eman

- Hiri eta erdiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 676 37 96 36.

31. Galdu

- Frantseseko liburua galdu dut: "Le Nouveau Sans Frontieres Perfectionnement" izenburuduna. Tel.: 943 79 69 68 (Izaskun).

- Irailaren 20an, eguaztena, Erguingo Udalpe plazako eskaileretan betaurrekoak galdu nituen. Brico markakoak, berdeak. Tel.: 943 77 01 42.

- Urriaren 8an, igandean, Etxague-neko bolatoki ondoan argazki kamera eta prismatiko batzuk galdu zitzaizkigun. Aurkitu dituenak mesedez 943 79 95 50 edota 943 79 19 03 telefonora dei dezala. Eskertuko da.

32. Aurkitu

- Ehiza txakur beltza agertu da. Tel.: 943 79 52 80.

HARREMANAK


36. Harremanak

- Arrasaten bizi naiz eta ingelesez (amerikeraz) ondo dakidan mutila naiz. Frantsesez ondo dakien neska baten bila nabil bere ingelesa eta nire frantsesa hobetzeko. Deitu 619 072 900 telefonora.

37. Bestelakoak

- Berreskuratu zure osasuna energia erabiliz. Gaixotasun mota guztiak, norberarentzako tratamenduekin. Deitu inolako konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



Aste honetako argazki zaharra benetan berezia da: datorrendomekan bere urtebetetzea izango da; eta ez edonolakoa, gainera: 100 urte beteko ditu! 1900eko urriaren 15ekoa da, beraz, argazkia.

Horrez gain, argazkian

agertzen den familia ere oso ezaguna da herri honetan: Letonarrak.

Lehenengo lerroari begiratu, ezkerretik hasita eserita dagoen lehenengo emakumea Maria Madariaga Muxika da eta gizonezkoa, berriz, Cristobal Letona Ortueta.

Goialdean, oster, eskuinaldetik hasita agertzen den

mutikoa, Vicente Letona Madariaga da, Jose Letonaren aita. Bitxikeria moduan, esan, 1885. urtean jaio zela; argazkian 15 urte ditu, beraz. Zuriz dagoen neskatila, berriz, Luisa Letona Arrieta da.

Familia horretatik, Vicente kenduta, beste denak kanpora joan ziren bizitzera; neskek aurrenengo, mutilak ondo-

ren. Argazki hau, baina, Mondragoen ateratakoa da, oraindik denak herrian bizi zirenean.

Argazkia:

Luisa Letona Arrieta.

Berriemaileak:

Luisa Letona Arrietaren alabak.



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

expert 



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik



RENAULT

MÉGANE RT
1.9 diesel: 1.895.000 pta

MECA

ARRASATE Tel.: 943 71 24 72 • BERGARA Tel.: 943 76 40 68